

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lurdes Esnaola Legasa

*Lezo, Gipuzkoa
(1961)*

Aurkibidea



Biografia



Lezon jaioa, Kale Nagusian.
Ama lezoar nafarra du:
Legasan jaioa baina hiru
urtetatik Lezon bizi izan zena.
Aita, berriz, Erreterriakoa.
Aita Lezoko ikastolako
sortzaileetako bat izan zen
eta Lurdesi ere ikastolari
buruz egin genion
elkarrizketa. Umetan Manoli
Larrearekin eta Maria Karmen
Goñirekin ibili zen ikastolan
eta gero Erreterriako
ikastolan jarraitu zituen
ikasketak.

Zintak

LEZ-116

- **Proiektua:** Badiako ikastola txikiak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-03-27
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Lezoko ikastolako lehenengo ikasleetako bat izan zen

- **Erref:** LEZ-116/004
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:01:39. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastola ondoan bizi ziren eta bertara joaten ziren, andereño Manolirekin. Oso zorrotza zen. Handik, lehenengo ikastola izango zen etxe prefabrikatura joan ziren ikastera, Lekaroz-ko Mari Carmen Goñi andereñoarekin. Lezon ikasketak amaituta, Erreterrian jarraitu zituen ikasketak

2. Bazkalorduan korrika etxera eta ikastolara bueltan

- **Erref:** LEZ-116/005
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Lezokoak korrika egiten beti izan dira onak. Eguerdian, etxera bazkaltzera joateko eta ikastolara bueltatzeko korrika joaten ziren.

3. Erreterian ez zituzten Lezoko ikasleak nahi

- **Erref:** LEZ-116/006
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:05:11. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Lurdesen aita izan zen Lezoko ikastolako sortzaileetako bat. Ikasketak Erreteriko ikastolan jarraitzeko arazoak izan zituztela dio. Erreteriko ikastolan, antza, ez zituzten Lezoko ikasleak nahi. Azkenean lortu zuten bertan ikastea, baina sorbaldaren gainetik begiratzen zieten sentsazioa dauka Lurdesek. Irakasleak zorrotzak baziren ere, ondo portatzen ziren.

4. Lezoko ikastola prefabrikatua eta andereño berria

- **Erref:** LEZ-116/008
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

Lezoko ikastola prefabrikatuari buruzko gogoeta. Mari Carmen andereñoak ikasketa metodologia berria ekarri zuela gogoratzen du. Horren aurretik, lehenengo ikastola garage batean zegoen eta neska eta mutilak elkarrekin zeuden. Prefabrikatuan, alde batetik neskak eta bestetik, mutilak. Xabiertxo liburua erabiltzen zuten ikastolan.

5. Lezoko dantza-taldea

- **Erref:** LEZ-116/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Patxi Larrea izan zuen euskal-dantzetako maisua eta euskarazko kantak ere ikasten zituzten. Zortzi urterekin hasi zen dantzan. Irakaslea da orain.

6. Gaztelania 20 urterekin ikasi zuen

- **Erref:** LEZ-116/014
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:19:07. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Dantza-taldeko giroa euskalduna izan da beti, biata frankismoan ere. Gaztelaniaz ikasi zuen 20 urte zituenean. Giro guztiz euskaldun batean hazi zen Lurdes, ikastolaren inguruan.

7. Ikastolara ikuskaritzakoak joaten ziren

- **Erref:** LEZ-116/015
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:24:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikuskaritzakoak ikastolara joaten zitzaizkien eta galderak erantzun behar izaten zituzten, gaztelaniaz. Mari Carmen (Goñi) tituludun irakaslea zen.

8. Jaunartzea, izebaren ezkontzan egin zuen

- **Erref:** LEZ-116/018
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:24:57. **Bukatu:** 00:25:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Jaunartzea euskaraz egin zuen, bere izeba ezkondu zen egun eta momentu berdinean.

9. Ikastola modu klandestinoan sortzen

- **Erref:** LEZ-116/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:29:06. **Bukatu:** 00:30:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Lezoko ikastola eta geroako Lizeoa sortzeko, bilera klandestino asko egin ziren. Sortzaileek ez zuten ikasketarik, baina euskarazko hezkuntza eskaintzeko helburua argi zuten.

10. Mutilik ez euskal-dantzetan

- **Erref:** LEZ-116/021
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Garai batean, gauza asko egiten ziren euskal sentimenduarengatik. Gaur egun, ez. Mutil gutxi daude euskal-dantzetan.

11. Ikastolara joatea garestia zen

- **Erref:** LEZ-116/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Etxe azpiko dendan euskaraz egiten zuten. Oso garestia zen Erretereriako ikastolara joatea. Bertan, dirudunen seme-alabek ikasten zuten.

12. Ikastolara seme-alabak eramatea asko arriskatzea zen

- **Erref:** LEZ-116/025
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:36:14. **Bukatu:** 00:39:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Ikastolako sortzaileek eta lehenengo ikasleen gurasoek ez zuten gehiegi pentsatzen geroko ikasketetan. Seme-alabek euskaraz ikastea zen helburu bakarra, eta gero gerokoak. Lurdesen ikastolako gelakide bat traumatologoa da gaur egun. Harek ere euskaraz egin zituen ikasketak eta batxilergoan ikasi zuen gaztelaniaz, gero medikuntza egiteko.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com